2.º Los parientes que pudieran tener derecho a la herencia y fueren conocidos, cuando no conste la existencia de testamento ni se haya hecho la declaración de herederos abintestato.

3.º Los herederos o legatarios de parte alícuota.

4.º Los acreedores a cuya instancia se hubiere decretado la intervención del caudal hereditario y, en su caso, los que estuvieren personados en el procedimiento de división de la herencia.

5.º El Ministerio Fiscal, siempre que pudiere haber parientes desconocidos con derecho a la sucesión legítima, o que alguno de los parientes conocidos con derecho a la herencia o de los herederos o legatarios de parte alícuota no pudiere ser citado personalmente por no ser conocida su residencia, o cuando cualquiera de los interesados sea menor o incapacitado y no tenga representante legal.

6.º El abogado del Estado, o, en los casos previstos legalmente, los Servicios Jurídicos de las

edozeinek, horiek egiazatu badute abintestato jaraunleen inguruko adierazpena notarioaren aurrean eragin dutela, edo, jaraunle-adierazpena judiziala eragitean jarauntsiko ondasunak esku hartzea eskatzen bada.

2.) Edozein jaraunskideek edo zati alikuotaren legatu-hartzailek, jarauntsia epaiketean zatitzea eskatzean, salbu eta testamentu-xedapenak esanbidez debekatu duenean esku-hartze hori.

2. Halaber, jarauntsiko ondasunetan esku hartzea eska dezakete, aurreko artikulua bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera, testamentuan bertan aitortutako hartzekodunek edo jaraunskideek aitortutakoek eta euren eskubidea titulu betearazlean jasota dutenek.

793. artikulua. Lehenengo jarduna, eta inbentarioa egiteko interesdunei zitazioa egitea

1. Aurreko artikuluek aipatu kasuetatik edozeinetan, jarauntsiko ondasunetan esku hartzea erabaki ondoren, auzitegiak auto bitartez aginduko du, nahitaezkoa izanez gero eta alde zuzenetatik egin ez bada, behar-beharrezko neurriak hartzea, ondasunen segurtasunerako, baita ostu edo ezkuta daitezkeen liburuen, paperen, postaturkearen eta efektuen segurtasunerako ere.

2. Ebazpen berean, auzitegiak inbentarioa egiteko eguna eta ordua ezarriko ditu, eta interesdunei zitazioa egitea aginduko du.

3. Inbentarioa egiteko, honako hauei egin behar zaie zitazioa:

1.) Alargunari.

2.) Jarauntsirako eskubidea izan dezaketen ahaide ezagunei, baldin eta testamenturik agertzen ez bada eta abintestato jaraunleen inguruko adierazpena egin ez bada.

3.) Jaraunleei edo zati alikuotaren legatu-hartzailei.

4.) Jarauntsiko ondasunetan esku hartzea agintzeko eskubidea egin duten hartzekodunei, eta, kasuan-kasuan, jarauntsia banatzeko prozeduran bertaratu direnei.

5.) Fiskaltzari, baldin eta oinordetza legitimorako eskubidea duten ahaide ezegunak egon badaitezke; edo, jarauntsirako eskubidea duen ahaide ezagun bati, jaraunle bati edo zati alikuotaren legatu-hartzaile bati zuzenean ezin bazaio zitaziorik egin, bere bizilekua zein den ez jakiteagatik; edota, interesdunetako bat adingabea edo ezgaitua bada eta legezko ordezkariarik ez bada.

6.) Estatuaren abokatuari, edo, legeak ezarri kasuetan, autonomia erkidegoen zerbitzu

Comunidades Autónomas, cuando no conste la existencia de testamento ni de cónyuge o parientes que puedan tener derecho a la sucesión legítima.

Artículo 794. Formación del inventario

1. Citados todos los que menciona el artículo anterior, en el día y hora señalados, procederá el Secretario Judicial, con los que concurran, a formar el inventario, el cual contendrá la relación de los bienes de la herencia y de las escrituras, documentos y papeles de importancia que se encuentren.
2. Si por disposición testamentaria se hubieren establecido reglas especiales para el inventario de los bienes de la herencia, se formará éste con sujeción a dichas reglas.
3. Cuando no se pudiese terminar el inventario en el día señalado se continuará en los siguientes.
4. Si se suscitare controversia sobre la inclusión o exclusión de bienes en el inventario se citará a los interesados a una vista, continuando la tramitación con arreglo a lo previsto para el juicio verbal.

La sentencia que se pronuncie sobre la inclusión o exclusión de bienes en el inventario dejará a salvo los derechos de terceros.

Artículo 795. Resolución sobre la administración, custodia y conservación del caudal hereditario

Hecho el inventario, determinará el tribunal, por medio de auto, lo que según las circunstancias corresponda sobre la administración del caudal, su custodia y conservación, ateniéndose, en su caso, a lo que sobre estas materias hubiere dispuesto el testador y, en su defecto, con sujeción a las reglas siguientes:

- 1.º El metálico y efectos públicos se depositarán con arreglo a derecho.
- 2.º Se nombrará administrador al viudo o viuda y, en su defecto, al heredero o legatario de parte alícuota que tuviere mayor parte en la herencia.

A falta de éstos, o si no tuvieren, a juicio del tribunal, la capacidad necesaria para desempeñar el cargo, podrá el tribunal nombrar administrador a cualquiera de los herederos o legatarios de parte alícuota, si los hubiere, o a un tercero.

- 3.º El administrador deberá prestar, en cualquiera de las formas permitidas por esta Ley, caución bastante a responder de los bienes que se le entreguen, que será fijada por el tribunal.

Podrá éste, no obstante, dispensar de la caución al cónyuge viudo o al heredero designado

juridicoki, testamenturik ez agertzeaz gain, ezkontiderik nahiz oinordetza legitimorako eskubidea izan dezakeen ahaiderik ez badago.

794. artikulua. Inbentarioa egitea

1. Aurreko artikuluan aipatu guztie ezarritako egunean eta orduan zitazioa egin ondoren, idazkari judizialak inbentarioa egingo du, bertan agertzen direnekin. Inbentario horretara bilduko da jarauntsiko ondasunen zerrenda, baita aurkitutako eskritura, agiri eta paper garrantzitsuen zerrenda ere.
 2. Testamentu-xedapenen bitartez erregela bereziak ezarri badira jarauntsiko ondasunen inbentarioa egiteko, erregela horiek aintzat hartuta egingo da inbentarioa.
 3. Ezarri egunean ezin bada inbentarioa bukatu, hurrengo egunetan jarraituko da.
 4. Inbentarioan ondasunak sartzeari edo ez sartzeari buruzko eztabaida sortuz gero, ikustaldirako zitazioa egingo zaie interesdunei, eta izapidetzak aurrera egingo du, hitzeko epaiketarako ezarritakoaren arabera.
- Inbentarioan ondasunak sartzeari edo ez sartzeari buruz zein epaitan erabaki eta epai horrek ez die kalterik egingo hirugarrenen eskubideei.

795. artikulua. Jarauntsiko ondasunak administratzeari, zaintzeari eta artatzeari buruzko ebazpena

Inbentarioa egin ondoren, auzitegiak auto bitartez aginduko du inguruabarren arabera ondasunak administratzeari, zaintzeari eta artatzeari buruz egoki dena, eta, kasuan-kasuan, aintzat hartuko du gai horien inguruan testamentugileak xedatutakoa. Testamentugileak ezer xedatu ezean, honako erregela hauek hartuko ditu kontuan:

- 1.) Eskudirua eta efektu publikoak zuzenbidearen arabera gordailutuko dira.
 - 2.) Alarguna administratzaile izendatuko da, eta, alargunik izan ezean, jarauntsian zatirik handiena duen jaraunlea edo zati alikuotaren legatu-hartzailea.
- Halakorik ere ez badago, edo, auzitegiaren ustez, horiek karguan jarduteko behar besteko gaitasunik ez badute, auzitegiak administratzaile izenda dezake edozein jaraunle nahiz zati alikuotaren legatu-hartzaile, halakoa bada, edo hirugarren bat.
- 3.) Administratzaileak behar besteko kausioa eman beharko du, lege honek ahalbidetutako moduetatik edozeinetan. Kausio hori da administratzaileari zein ondasun eman eta ondasunoi aurre egiteko; auzitegiak zehaztuko du kausio horren zenbatekoa. Dena den, auzitegiak kausioa ematek salbuets dezake administratzaile izendatutako

administrador cuando tengan bienes suficientes para responder de los que se le entreguen.

4.º Los herederos y legatarios de parte alícuota podrán dispensar al administrador del deber de prestar caución.

No habiendo acerca de esto conformidad, la caución será proporcionada al interés en el caudal de los que no otorguen su relevación.

Se constituirá caución, en todo caso, respecto de la participación en la herencia de los menores o incapacitados que no tengan representante legal y de los ausentes a los que no se haya podido citar por ignorarse su paradero.

Artículo 796. Cesación de la intervención judicial de la herencia

1. Cesará la intervención judicial de la herencia cuando se efectúe la declaración de herederos, a no ser que alguno de ellos pida la división judicial de la herencia, en cuyo caso podrá subsistir la intervención, si así se solicita, hasta que se haga entrega a cada heredero de los bienes que les hayan sido adjudicados.

2. Durante la sustanciación del procedimiento de división judicial de la herencia podrán pedir los herederos, de común acuerdo, que cese la intervención judicial.

El tribunal así lo acordará, salvo cuando alguno de los interesados sea menor o incapacitado y no tenga representante legal o cuando haya algún heredero ausente al que no haya podido citarse por ignorarse su paradero.

3. Si hubiera acreedores reconocidos en el testamento o por los coherederos o con derecho documentado en un título ejecutivo, que se hubieran opuesto a que se lleve a efecto la partición de la herencia hasta que se les pague o afiance el importe de sus créditos, no se acordará la cesación de la intervención hasta que se produzca el pago o afianzamiento.

SECCIÓN 3.ª

De la administración del caudal hereditario

Artículo 797. Posesión del cargo de administrador de la herencia

1. Nombrado el administrador y prestada por éste la caución, se le pondrá en posesión de su cargo, dándole a reconocer a las personas que el mismo designe de aquellas con quienes deba entenderse para su desempeño.

2. Para que pueda acreditar su representación se le dará testimonio, en que conste su nombramiento y que se halla en posesión del cargo.

3. Podrá hacerse constar en el Registro de la

alarguna edo jaraunslea, horrek behar beste ondasunik badu berari eman zaizkion ondasunei aurre egiteko.

4.) Jaraunsleek eta zati alikuotaren legatu-hartzaileek administratzailea salbuets dezakete kauziora emateko betebeharratik.

Horren inguruko adostasunik izan ezean, kauzioak proportzioa izango du adostasunik eman ez dutenek ondasunetan izan dezaketen interesarekin.

Beti eratuko da kauziora, legezko ordezkariak ez duten adingabeak edo ezgaituak jarauntsian parte hartzeari dagokionez, baita, non dauden ez jakiteagatik, zitaziorik izan ez duten absenteei dagokienez ere.

796. artikulua. Jarauntsiaren gaineko esku-hartze judiziala amaitzea

1. Jarauntsiaren gaineko esku-hartze judiziala amaituko da, jaraunsle-adierazpena egitean, salbu eta jaraunsleetatik batek jarauntsia epaiketan zaitzea eskatzen duenean; kasu horretan, eskuhartzeak irau dezake, hala eskatzen bada, jaraunsle bakoitzari adjudikatu zaizkion ondasunak eman arte.

2. Jarauntsia epaiketan zaitzeko prozedura gauzatu bitartean, jaraunsleek batera etorritz eska dezakete esku-hartze judiziala amaitzea.

Auzitegiak hori aginduko du, salbu eta interesdunetatik bat adingabea edo ezgaitua denean eta legezko ordezkariak ez duenean, edo, non dagoen ez jakiteagatik, zitazioa izan ez duen jaraunsle absentea dagoenean.

3. Testamentuan bertan aitortutako hartzekodunek nahiz jaraunskideek aitortutakoak badaude, edo titulu betearazlean jasotako eskubidea dutenak badaude, eta horiek jarauntsia banatzearen aurka jartzen badira, ez da aginduko esku-hartzea amaitzea, euren kredituen zenbatekoa ordaindu edo horien gaineko fidantza eman arte.

3. ATALA

Jarauntsiko ondasunak administratzea

797. artikulua. Jarauntsiaren administratzailea karguaz jabetzea

1. Administratzailea izendatu eta horrek kauziora eman ostean, karguaz jabetuko da. Administratzaileak bere egitekoa gauzatzeko zein pertsonarekin harremanak izan behar eta horietatik berak izendatutakoei emango zaie karguaren berri.

2. Administratzaileari lekukotza emango zaio, bere ordezkariak egiaztatu ahal izateko. Lekukotzan agertuko dira administratzailearen izendapena eta administratzailea karguaz jabetu izana.

3. Jabetza Erregistroan agerraraz daitezke

Propiedad el estado de administración de las fincas de la herencia y el nombramiento de administrador mediante el correspondiente mandamiento judicial con los requisitos previstos en la legislación hipotecaria.

Artículo 798. Representación de la herencia por el administrador

Mientras la herencia no haya sido aceptada por los herederos, el administrador de los bienes representará a la herencia en todos los pleitos que se promuevan o que estuvieren principiados al fallecer el causante y ejercerá en dicha representación las acciones que pudieran corresponder al difunto, hasta que se haga la declaración de herederos.

Aceptada la herencia, el administrador sólo tendrá la representación de la misma en lo que se refiere directamente a la administración del caudal, su custodia y conservación, y en tal concepto podrá y deberá gestionar lo que sea conducente, ejercitando las acciones que procedan.

Artículo 799. Rendición periódica de cuentas

1. El administrador rendirá cuenta justificada en los plazos que el tribunal le señale, los que serán proporcionados a la importancia y condiciones del caudal, sin que en ningún caso puedan exceder de un año.

2. Al rendir la cuenta, el administrador consignará el saldo que de la misma resulte o presentará el resguardo original que acredite haberlo depositado en el establecimiento destinado al efecto.

En el primer caso, el tribunal acordará inmediatamente mediante providencia el depósito y, en el segundo, que se ponga en los autos diligencia expresiva de la fecha y cantidad del mismo.

3. Para el efecto de instruirse de las cuentas y a fin de inspeccionar la administración o promover cualesquiera medidas que versen sobre rectificación o aprobación de aquéllas, serán puestas de manifiesto en la Secretaría a la parte que, en cualquier tiempo, lo pidiere.

Artículo 800. Rendición final de cuentas. Impugnación de las cuentas

1. Cuando el administrador cese en el desempeño de su cargo, rendirá una cuenta final complementaria de las ya presentadas.

2. Todas las cuentas del administrador, incluso la final, serán puestas de manifiesto a las partes en la Secretaría, cuando cese en el desempeño de su cargo, por un término común, que el tribunal señalará mediante providencia según la importancia de aquéllas.

jarauntsiko finken administrazio- egoera eta administratzailearen izendapena, hipotekalegerian ezarritako betekizunekin bat datorren manamendu judizialaren bitartez.

798. artikulua. Administratzaileak jarauntsia ordezkatzea

Jaraunselek jarauntsia onartzen ez duten bitartean, ondasunen administratzaileak jarauntsia ordezkatzeko du, kausatzailea hiltzean eraginda edo jada hasita zeuden auzi guztietan. Halaber, administratzaileak hildakoari zegozkion akzioak egikaritzeko ditu ordezkari horretan, jaraunse-adierazpena egin arte.

Jarauntsia onartu ondoren, administratzaileak jaraunsiaren gaineko ordezkari izango du, ondasunak administratzeari, zaintzeari eta artatzeari dagokienez bakarrik; horretarako, egokia den kudeaketa egin beharko du, bidezko akzioak egikaritzuz.

799. artikulua. Kontu-arrazoiak aldizka ematea

1. Administratzaileak egiaztatutako kontu-arrazoiak emango ditu, auzitegiak ezarri epeetan. Epe horiek proportzioa izango dute ondasunen garrantziarekin eta baldintzekin; epeok, gehienez jota, urtebetekoak izango dira.

2. Kontu-arrazoiak ematean, administratzaileak zainpean jarriko du emate horrek eratorri saldoa, edo jatorrizko gordekina aurkeztuko du saldoa ezarri establezimenduan gordailutu duela egiaztatzeko.

Lehenengo kasuan, auzitegiak, probidentzia bitartez, berehala aginduko du gordailua; eta, bigarrenean, gordailuaren datari eta gordailututako zenbatekoari buruzko eginbide adierazgarria auzi-paperetan jasotzea.

3. Kontu-arrazoien ondoriozko izapideak egiteko, bai eta administrazioa ikuskatu edo kontu-arrazoiak zuzentzeari nahiz onesteari buruzko neurriak sustatzeko ere, haiek idazkaritzan erakutsiko dira, edozein unetan, horiek eskatu dituen alderdiari.

800. artikulua. Azken kontu-arrazoiak ematea. Kontu-arrazoiak aurkaratzea

1. Administratzaileak, jada aurkeztutako kontu-arrazoien gainean, azken kontu-arrazoi osagarria emango du, kargua uztean.

2. Administratzailearen kontu-arrazoi guztiak, azken kontu-arrazoia barne, alderdiei erakutsiko zaizkie idazkaritzan, administratzaileak kargua uztean. Horretarako, auzitegiak, probidentzia bitartez, epe bakarra ezarriko du, kontu-arrazoien garrantzia aintzat hartuz.

3. Pasado dicho término sin hacerse oposición a las cuentas, el tribunal dictará auto aprobándolas y declarando exento de responsabilidad al administrador.

En el mismo auto, el tribunal mandará devolver al administrador la caución que hubiere prestado.

4. Si las cuentas fueren impugnadas en tiempo hábil, se dará traslado del escrito de impugnación al cuentadante para que conteste conforme a lo previsto por los artículos 404 y siguientes, continuando la tramitación con arreglo a lo dispuesto para el juicio verbal.

Artículo 801. Conservación de los bienes de la herencia

1. El administrador está obligado bajo su responsabilidad, a conservar sin menoscabo los bienes de la herencia, y a procurar que den las rentas, productos o utilidades que corresponda.

2. A este fin deberá hacer las reparaciones ordinarias que sean indispensables para la conservación de los bienes.

Cuando sean necesarias reparaciones o gastos extraordinarios, lo pondrá en conocimiento del Juzgado, el cual, oyendo en una comparecencia a los interesados que menciona el apartado 3 del artículo 793 y previo reconocimiento pericial y formación de presupuesto resolverá lo que estime procedente, atendidas las circunstancias del caso.

Artículo 802. Destino de las cantidades recaudadas por el administrador en el desempeño del cargo

1. El administrador depositará sin dilación a disposición del Juzgado las cantidades que recaude en el desempeño de su cargo, reteniendo únicamente las que fueren necesarias para atender los gastos de pleitos, pago de contribuciones y demás atenciones ordinarias.

2. Para atender los gastos extraordinarios a que se refiere el artículo anterior el tribunal, mediante providencia, podrá dejar en poder del administrador la suma que se crea necesaria, mandando sacarla del depósito si no pudiere cubrirse con los ingresos ordinarios.

Esto último se ordenará también cuando deba hacerse algún gasto ordinario y el administrador no disponga de la cantidad suficiente procedente de la administración de la herencia.

Artículo 803. Prohibición de enajenar los bienes inventariados. Excepciones a dicha prohibición

1. El administrador no podrá enajenar ni gravar los bienes inventariados.

2. Exceptúanse de esta regla:

3. Epe hori igaro bada kontuen aurka jarri gabe, auzitegiak autoa emango du, kontuak onesteko eta administratzaileak erantzukizunik ez duela adierazteko.

Auto berean, auzitegiak aginduko du administratzaileari itzultzea horrek emandako kauzinoa.

4. Kontu-arrazoiak denbora baliodunean aurkaratu badira, aurkaratzeko idazkia helaraziko zaio kontu-arrazoien emaileari, horrek erantzun dezan 404. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoaren arabera, eta izapidetzak aurrera egingo du, hitzezko epaiketarako xedatutakoaren arabera.

801. artikulua. Jarauntsiko ondasunak artatzea

1. Administratzaileak jarauntsiko ondasunak artatu behar ditu bere erantzukizunpean, ondasunoi kalterik egin gabe. Halaber, ahaleginak egingo ditu, jarauntsiko ondasunek errenta, ekoizkin eta onura egokiak eman ditzaten.

2. Horretarako, ondasunak artatzeko behar-beharrezko diren konponketa arruntak egin behar ditu administratzaileak.

Konponketa edo gastu bereziak beharrezkoak badira, epaitegiari emango dio horren berri administratzaileak. Epaitegiak agerraldian entzungo ditu 793. artikuluko 3. paragrafoan aipatu interesdunak, eta, adituek egoera aztertu eta aurrekontua eratu ondoren, bidezkotzat jotzen duena ebartziko du, kasuan kasuko inguruabarrak kontuan hartuz.

802. artikulua. Administratzaileak karguan jardutean bildutako kopuruen erabilera

1. Administratzaileak, luzapenik gabe, epaitegiaren esanetara gordailututako ditu bere karguan jardutean bildutako kopuruak, eta atxikiko ditu, soilik- soilik, auzien gastuei, kontribuzioei eta gainerako arreta arruntei aurre egiteko beharrezkoak direnak.

2. Aurreko artikuluan aipatu gastu berezietan aurre egiteko, auzitegiak, probidentzia bitartez, administratzailearen esku utz dezake beharrezko kopurua. Sarrera arruntak nahiko ez badira kopuru hori ordaintzeko, kopurua gordailutik ateratzea aginduko du.

Azken hori aginduko da, orobat, gastu arrunten bat egin behar bada eta jarauntsiaren administrazioak eratorritako kopuru nahikorik ez badu administratzaileak.

803. artikulua. Inbentarioko ondasunak besterentzeko debekua. Debeku horren salbuespenak

1. Administratzaileak ezin ditu inbentarioko ondasunak besterendu, ezta kargatu ere.

2. Erregela horren salbuespen dira honako

- 1.º Los que puedan deteriorarse.
 - 2.º Los que sean de difícil y costosa conservación.
 - 3.º Los frutos para cuya enajenación se presenten circunstancias que se estimen ventajosas.
 - 4.º Los demás bienes cuya enajenación sea necesaria para el pago de deudas, o para cubrir otras atenciones de la administración de la herencia.
3. El tribunal, a propuesta del administrador, y oyendo a los interesados a que se refiere el apartado 3 del artículo 793, podrá decretar mediante providencia la venta de cualesquiera de dichos bienes, que se verificará en pública subasta conforme a lo establecido en la legislación notarial o en procedimiento de jurisdicción voluntaria.

Los valores admitidos a cotización oficial se venderán a través de dicho mercado.

Artículo 804. Retribución del administrador

1. El administrador no tendrá derecho a otra retribución que la siguiente:
 - 1.º Sobre el producto líquido de la venta de frutos y otros bienes muebles de los incluidos en el inventario, percibirá el 2 por 100.
 - 2.º Sobre el producto líquido de la venta de bienes raíces y cobranza de valores de cualquier especie, el 1 por 100.
 - 3.º Sobre el producto líquido de la venta de efectos públicos, el medio por 100.
 - 4.º Sobre los demás ingresos que haya en la administración, por conceptos diversos de los expresados en los párrafos precedentes, el tribunal le señalará del 4 al 10 por 100, teniendo en consideración los productos del caudal y el trabajo de la administración.
2. También podrá acordar el tribunal, mediante providencia, cuando lo considere justo, que se abonen al administrador los gastos de viajes que tenga necesidad de hacer para el desempeño de su cargo.

Artículo 805. Administraciones subalternas

1. Se conservarán las administraciones subalternas que para el cuidado de sus bienes tuviera el finado, con la misma retribución y facultades que aquél les hubiere otorgado.
2. Dichos administradores rendirán sus cuentas y remitirán lo que recauden al administrador judicial, considerándose como dependientes del mismo, pero no podrán ser separados por éste sino por causa justa y con autorización mediante providencia del tribunal.

3. Con la misma autorización podrá proveer el administrador judicial, bajo su responsabilidad las

ondasun hauek:

- 1.) Narria daitezkeenak.
 - 2.) Artatzeko zail eta garestiak direnak.
 - 3.) Fruituak, horiek besterentzeko inguruabar abantailatsuak badaude.
 - 4.) Zorrak edo jarauntsi-administrazioaren beste arreta batzuk ordaintzeko besterendu behar diren gainerako ondasunak.
3. Auzitegiak probidentzia bitartez agin dezake ondasun horietatik edozein saltzea, administratzaileak hala eskatuta eta 793. artikuluko 3. paragrafoan aipatu interesdunak entzun ondoren. Salmenta enkante publikoan gauzatuko da, notario-legerian edo borondatezko jurisdikzio prozeduran ezarritakoaren arabera.
- Kotizazio ofiziala duten baloreak merkatu horretan salduko dira.

804. artikulua. Administratzaileari ordaintzea

1. Administratzaileak honako ordainsari hauek soil-soilik jaso ditzake:
 - 1.) Inbentariora zein fruitu eta beste ondasun higigarri bildu eta horien salmentatik lortutako ekoizkin likidoaren %2.
 - 2.) Ondasun higiezin salmentatik eta edozein motatako baloreak kobratzetik lortutako ekoizkin likidoaren %1.
 - 3.) Efektu publikoen salmentatik lortutako ekoizkin likidoaren % 0,5.
 - 4.) Administrazioaren gainerako sarrerei dagokienez, aurreko lerroketan ezarri ez diren kontzeptuak direla eta, auzitegiak 100eko 4tik 100eko 10era zehaztutakoa, ondasunen ekoizkinak eta administrazioaren lana aintzat hartuz.
2. Halaber, auzitegiak probidentzia bitartez agin dezake, bidezkotzat jotzen badu, administratzaileari ordaintzea beraren karguan jarduteko egin behar izan dituen bidaiagastuak.

805. artikulua. Mendeko administrazioak

1. Hildakoak bere ondasunak zaintzeko mendeko zein administrazio izan eta administrazio horiei eutsiko zaie, hildakoak halakoei aitortutako ordainsari eta ahalmen berberekin.
2. Administratzaile horiek kontu-arrazoia emango dituzte, eta bildutakoa administratzaile judizialari igorriko diote. Administratzaileok administratzaile judizialaren mendekotzat joko dira; halere, administratzaile judizialak horiek banan ditzan, nahitaezkoa da arrazoi zuzena egotea eta auzitegiak probidentzia bitartez baimena ematea.
3. Administratzaile judizialak baimen berarekin bete ditzake, bere erantzukizunpean, bete

vacantes que resultaren.

CAPÍTULO II

Del procedimiento para la liquidación del régimen económico matrimonial

Artículo 806. Ámbito de aplicación

La liquidación de cualquier régimen económico matrimonial que, por capitulaciones matrimoniales o por disposición legal, determine la existencia de una masa común de bienes y derechos sujeta a determinadas cargas y obligaciones se llevará a cabo, en defecto de acuerdo entre los cónyuges, con arreglo a lo dispuesto en el presente capítulo y a las normas civiles que resulten aplicables.

Artículo 807. Competencia

Será competente para conocer del procedimiento de liquidación el Juzgado de Primera Instancia que esté conociendo o haya conocido del proceso de nulidad, separación o divorcio, o aquel ante el que se sigan o se hayan seguido las actuaciones sobre disolución del régimen económico matrimonial por alguna de las causas previstas en la legislación civil.

Artículo 808. Solicitud de inventario

1. Admitida la demanda de nulidad, separación o divorcio, o iniciado el proceso en que se haya demandado la disolución del régimen económico matrimonial, cualquiera de los cónyuges podrá solicitar la formación de inventario.

2. La solicitud a que se refiere el apartado anterior deberá acompañarse de una propuesta en la que, con la debida separación, se harán constar las diferentes partidas que deban incluirse en el inventario con arreglo a la legislación civil.

A la solicitud se acompañarán también los documentos que justifiquen las diferentes partidas incluidas en la propuesta.

Artículo 809. Formación del inventario

1. A la vista de la solicitud a que se refiere el artículo anterior, se señalará día y hora para que, en el plazo máximo de diez días, se proceda a la formación de inventario, mandando citar a los cónyuges.

En el día y hora señalados, procederá el Secretario Judicial, con los cónyuges, a formar el inventario de la comunidad matrimonial, sujetándose a lo dispuesto en la legislación civil para el régimen económico matrimonial de que se trate.

Cuando, sin mediar causa justificada, alguno de los cónyuges no comparezca en el día señalado, se le tendrá por conforme con la propuesta de inventario que efectúe el cónyuge que haya comparecido.

En este caso, así como cuando, habiendo comparecido ambos cónyuges, lleguen a un acuerdo, se consignará éste en el acta y se dará por concluido el acto.

En el mismo día o en el siguiente, se resolverá lo que proceda sobre la administración y disposición

gabe gera daitezkeen karguak.

II. KAPITULUA

Ezkontzaren ondasun-eraentza likidatzeko prozedura

806. artikulua. Aplikazio-eremua

Ezkontzaren edozein ondasun-eraentza likidatzeko, horrek badakar ezkontzako itunen edo lege-xedapenaren bitartez zama eta betebeharrak batzuen mendeko ondasun eta eskubideen masa erkidea izatea, aintzat hartuko dira, ezkontideen arteko hitzarmenik ez badago, kapitulu honetan xedatutakoa eta aplikagarri diren arau zibilak.

807. artikulua. Eskumena

Likidazio-prozeduraz arduratzeko eskumena du deuseztasun-, banantzeedo dibortzio-prozesuaz arduratzen ari den edo arduratu den lehen auzialdiko epaitegiak, edo legeria zibilean ezarritako arrazoiaren ondorioz ezkontzaren ondasun-eraentza desagitearen inguruko jardunaz arduratzen ari denak edo arduratu denak.

808. artikulua. Inbentarioa eskatzea

1. Deuseztasun-, banantze- edo dibortzio-demanda onartu ondoren, edo ezkontzaren ondasun-eraentza desagitea zein prozesutan eskatu eta hori hasi ondoren, ezkontideetatik edozeinek eska dezake inbentarioa eratzeko.

2. Aurreko paragrafoan aipatu eskabidearekin batera, proposamena ekarriko da; proposamen horretan jasoko dira, behar bezala bananduta, legeria zibilaren arabera inbentariora bildu beharreko kopuru guztiak. Eskabide horrekin batera ekarriko dira proposamenera bildutako zenbateko guztiak egiaztatzeko agiriak.

809. artikulua. Inbentarioa egitea

1. Aurreko artikuluan aipatu eskabidea kontuan hartuz, eguna eta ordua ezarriko dira, hamar eguneko epean gehienez jota, inbentarioa egin dadin; horretarako, ezkontideei zitazioa egitea aginduko da.

Zehaztu egun eta orduan, idazkari judizialak, ezkontideekin batera, ezkontza- erkidegoaren inbentarioa egingo du, legeria zibilak kasuan kasuko ezkontzaren ondasun-eraentzarentzat xedatutakoaren arabera.

Egiaztatutako arrazoirik egon gabe, ezkontideetatik bat agertzen ez bada ezarri egunean, ulertuko da ados dagoela agertu ezkontideak egindako inbentario-proposamenarekin.

Kasu horretan, baita bi ezkontideak agertu eta hitzarmena lortzen badute ere, hitzarmena aktan jaso eta ekitaldia bukatuko da.

Egun berean edo hurrengo egunean ebartziko da inbentariora zein ondasun bildu, eta

de los bienes incluidos en el inventario.

2. Si se suscitare controversia sobre la inclusión o exclusión de algún concepto en el inventario o sobre el importe de cualquiera de las partidas, se citará a los interesados a una vista, continuando la tramitación con arreglo a lo previsto para el juicio verbal.

La sentencia resolverá sobre todas las cuestiones suscitadas, aprobando el inventario de la comunidad matrimonial, y dispondrá lo que sea procedente sobre la administración y disposición de los bienes comunes.

Artículo 810. Liquidación del régimen económico matrimonial

1. Concluido el inventario y una vez firme la resolución que declare disuelto el régimen económico matrimonial, cualquiera de los cónyuges podrá solicitar la liquidación de éste.

2. La solicitud deberá acompañarse de una propuesta de liquidación que incluya el pago de las indemnizaciones y reintegros debidos a cada cónyuge y la división del remanente en la proporción que corresponda, teniendo en cuenta, en la formación de los lotes, las preferencias que establezcan las normas civiles aplicables.

3. Admitida a trámite la solicitud de liquidación, se señalará, dentro del plazo máximo de diez días, el día y hora en que los cónyuges deberán comparecer ante el Secretario Judicial al objeto de alcanzar un acuerdo y, en su defecto, designar contador y, en su caso, peritos, para la práctica de las operaciones divisorias.

4. Cuando, sin mediar causa justificada, alguno de los cónyuges no comparezca en el día señalado, se le tendrá por conforme con la propuesta de liquidación que efectúe el cónyuge que haya comparecido.

En este caso, así como cuando, habiendo comparecido ambos cónyuges, lleguen a un acuerdo, se consignará éste en el acta y se dará por concluido el acto, llevándose a efecto lo acordado conforme a lo previsto en los dos primeros apartados del artículo 788 de esta Ley.

5. De no lograrse acuerdo entre los cónyuges sobre la liquidación de su régimen económico-matrimonial, se procederá, mediante providencia, al nombramiento de contador y, en su caso, peritos, conforme a lo establecido en el artículo 784 de esta Ley, continuando la tramitación con arreglo a lo dispuesto en los artículos 785 y siguientes.

Artículo 811. Liquidación del régimen de participación

ondasun horien administrazioari eta xedapenari buruz bidezkoa dena.

2. Inbentarioan kontzepturen bat sartzeari edo ez sartzeari nahiz edozein kopururen zenbatekoari buruzko eztabaida sortuz gero, interesdunei ikustaldirako zitazioa egingo zaie, eta izapidetzak aurrera egingo du, hitzezko epaiketarako ezarritakoaren arabera.

Epaian sortutako arazo guztien inguruan ebatzi eta ezkontza-erkidegoaren inbentarioa onetsiko da. Horrez gain, epaian bidezkoa dena aginduko da, ondasun erkideak administratzearen eta xedatzearen inguruan.

810. artikulua. Ezkontzaren ondasun-eraentza likidatzea

1. Inbentarioa burutu bada, eta ezkontzaren ondasun-eraentza desegin dela zein ebazpenetan adierazi eta hori irmoa bada, ezkontideetatik edozeinek eska dezake ezkontzaren ondasun-eraentza likidatzea.

2. Eskabidearekin batera, likidazio-proposamena ekarri beharko da. Likidazio-proposamenera bildu behar dira ezkontide bakoitzari zordundutako kalte-galerak eta itzulketak ordaintzea, eta bai gerakina proportzio egokian banatzea ere. Erloak eratzeko, kontuan hartuko dira arau zibil aplikagarrietan ezarri lehenespenak.

3. Likidazio-eskabidearen izapidetza onartu ondoren, hamar eguneko epean gehienez jota, ezkontideak idazkari judicialaren aurrean agertzeko eguna eta ordua ezarriko dira. Agerraldi hori egingo da ezkontideek hitzarmena lor dezaten, eta, hitzarmenik lortu ezean, kontularia izenda dadin, eta, kasuan-kasuan, adituak izenda daitezten, horiek zatiketa-eragiketak gauza ditzaten.

4. Egiaztatutako arrazoirik egon gabe, ezkontideetako bat agertzen ez bada ezarri egunean, ulertuko da ados dagoela agertu ezkontideak egindako likidazio-proposamenarekin.

Kasu horretan, baita bi ezkontideak agertu eta hitzarmena lortzen badute ere, hitzarmena aktan jaso, ekitaldia bukatu eta gauzatuko da, lege honen 788. artikuluko lehenengo bi paragrafoen arabera adostutakoa.

5. Ezkontideak ados jartzen ez badira ezkontzaren ondasun-eraentza likidatzeko, kontularia izendatuko da probidentzia bitartez, eta, kasuan-kasuan, adituak izendatuko dira, lege honen 784. artikuluan ezarritakoaren arabera. Izapidetzak aurrera egingo du, 785. artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoaren arabera.

811. artikulua. Partaidetza-eraentza likidatzea

1. No podrá solicitarse la liquidación de régimen de participación hasta que no sea firme la resolución que declare disuelto el régimen económico matrimonial.

2. La solicitud deberá acompañarse de una propuesta de liquidación que incluya una estimación del patrimonio inicial y final de cada cónyuge, expresando, en su caso, la cantidad resultante a pagar por el cónyuge que haya experimentado un mayor incremento patrimonial.

3. A la vista de la solicitud de liquidación, se señalará, dentro del plazo máximo de diez días, el día y hora en que los cónyuges deberán comparecer ante el Secretario Judicial al objeto de alcanzar un acuerdo.

4. Cuando, sin mediar causa justificada, alguno de los cónyuges no comparezca en el día señalado, se le tendrá por conforme con la propuesta de liquidación que efectúe el cónyuge que haya comparecido.

En este caso, así como cuando, habiendo comparecido ambos cónyuges, lleguen a un acuerdo, se consignará éste en el acta y se dará por concluido el acto.

5. De no existir acuerdo entre los cónyuges, se les citará a una vista, y continuará la tramitación con arreglo a lo previsto para el juicio verbal.

La sentencia resolverá sobre todas las cuestiones suscitadas, determinando los patrimonios iniciales y finales de cada cónyuge, así como, en su caso, la cantidad que deba satisfacer el cónyuge cuyo patrimonio haya experimentado un mayor incremento y la forma en que haya de hacerse el pago.

TÍTULO III DE LOS PROCESOS MONITORIO Y CAMBIARIO

CAPÍTULO PRIMERO

Del proceso monitorio

Artículo 812. Casos en que procede el proceso monitorio

1. Podrá acudir al proceso monitorio quien pretenda de otro el pago de deuda dineraria, vencida y exigible, de cantidad determinada que no exceda de 5 000 000 de pesetas, cuando la deuda de esa cantidad se acredite de alguna de las formas siguientes*:

* El Real Decreto 1.417/2001, de 17 de diciembre, establece la cuantía de este apartado en 30 000 euros.

1.ª Mediante documentos, cualquiera que sea su forma y clase o el soporte físico en que se encuentren, que aparezcan firmados por el deudor o con su sello, impronta o marca o con cualquier otra

1. Ezin da eskatu partaidetza-eraentza likidatzea, ezkontzaren ondasun-eraentza desegin dela zein ebazpenetan adierazi eta hori irmoa izan arte.

2. Eskabidearekin batera, likidazio-proposamena aurkeztu behar da. Proposamen horretara bilduko da ezkontide bakoitzaren hasierako eta amaierako ondarearen zenbatespena, eta, hala badagokio, bertan adierazi behar da ondare-gehikuntzarik handiena izan duen ezkontideak ordaindu beharreko kopurua.

3. Likidazio-eskabidea kontuan hartuta, hamar eguneko epean gehienez jota, ezkontideak idazkari judicialaren aurrean agertzeko eguna eta ordua ezarriko dira, ezkontideek hitzarmena lor dezaten.

4. Egiatztatutako arrazoirik egon gabe, ezkontideetako bat agertzen ez bada ezarri egunean, ulertuko da berori ados dagoela agertu ezkontideak egindako likidazio-proposamenarekin.

Kasu horretan, baita bi ezkontideak agertu eta hitzarmena lortu badute ere, hitzarmena aktan jaso eta ekitaldia bukatuko da.

5. Ezkontideak ados jartzen ez badira, horiei ikustaldirako zitazioa egingo zaie, eta izapidetzak aurrera egingo du, hitzeko epaiketarako ezarritakoaren arabera.

Epaian sortu diren arazo guztien ebazpena emango da, eta ezkontide bakoitzaren hasierako eta amaierako ondareak zehaztuko dira. Halaber, epaian adieraziko da, hala badagokio, ondare-gehikuntzarik handiena izan duen ezkontideak ordaindu beharreko kopurua eta ordainketa egiteko modua.

III. TITULUA PROZESU MONITORIOA ETA KANBIO- PROZESUA

LEHENENGO KAPITULUA

Prozesu monitorioa

812. artikulua. Prozesu monitorioa noiz den bidezkoa

1. Prozesu monitoriora jo dezake mugaguneratuta dagoen eta eska daitekeen diruzko zorra berari ordaintzea nahi duenak, baldin eta zor horren kopurua zehatza bada, 5 000 000 pezeta gainditzen ez baditu eta zorraren kopurua honako bide hauen bitartez egiaztatzen bada*:

* Abenduaren 17ko 1.417/2001 Errege Dekretuak 30 000 euroko kopurua ezarri du atal horretarako.

1.) Zordunak sinatu dituen agirien bitartez, agirion forma eta mota edo euskarri fisikoa edozein dela, edo zordunaren zigilua, lorratz nahiz marka edo beste edozein ikur, fisiko

señal, física o electrónica, proveniente del deudor.

2.ª Mediante facturas, albaranes de entrega, certificaciones, telegramas, telefax o cualesquiera otros documentos que, aun unilateralmente creados por el acreedor, sean de los que habitualmente documentan los créditos y deudas en relaciones de la clase que aparezca existente entre acreedor y deudor.

2. Sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado anterior y cuando se trate de deudas que reúnan los requisitos establecidos en dicho apartado, podrá también acudir al proceso monitorio, para el pago de tales deudas, en los casos siguientes: 1.º Cuando, junto al documento en que conste la deuda, se aporten documentos comerciales que acrediten una relación anterior duradera.

2.º Cuando la deuda se acredite mediante certificaciones de impago de cantidades debidas en concepto de gastos comunes de Comunidades de propietarios de inmuebles urbanos.

Artículo 813. Competencia

Será exclusivamente competente para el proceso monitorio el Juez de Primera Instancia del domicilio o residencia del deudor o, si no fueren conocidos, el del lugar en que el deudor pudiera ser hallado a efectos del requerimiento de pago por el tribunal, salvo que se trate de la reclamación de deuda a que se refiere el número 2.º del apartado 2 del artículo 812, en cuyo caso será también competente el tribunal del lugar en donde se halle la finca, a elección del solicitante.

En todo caso, no serán de aplicación las normas sobre sumisión expresa o tácita contenidas en la sección 2.ª del capítulo II del Título II del Libro I.

Artículo 814. Petición inicial del procedimiento monitorio

1. El procedimiento monitorio comenzará por petición del acreedor en la que se expresarán la identidad del deudor, el domicilio o domicilios del acreedor y del deudor o el lugar en que residieran o pudieran ser hallados y el origen y cuantía de la deuda, acompañándose el documento o documentos a que se refiere el artículo 812.

La petición podrá extenderse en impreso o formulario que facilite la expresión de los extremos a que se refiere el apartado anterior.

2. Para la presentación de la petición inicial del procedimiento monitorio no será preciso valerse de Procurador y Abogado.

Artículo 815. Admisión de la petición y requerimiento de pago

1. Si los documentos aportados con la petición fueran de los previstos en el apartado 2 del artículo

zein elektronikoko duten agirien bitartez.

2.) Fakturen, emate-albaranen, ziurtagirien, telegramen, telefaxaren edo beste edozein agiriren bitartez, nahiz eta horiek hartzekodunak alde bakarrez sortu, baldin eta hartzekodunaren eta zordunaren arteko harremanetako kredituak eta zorrak jaso ohi dituztenak badira.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, eta paragrafo horretan ezarri eskakizunak betetzen dituzten zorrak izanez gero, honako kasu hauetan ere prozesu monitoriora jo daiteke: 1.) Zorra jasotzen duen agiriarekin batera, ekartzen badira aurretiazko egoera iraunkorra egiaztatzeko merkataritzako agiriak.

2.) Zorra egiaztatzen bada, hiri-lurreko ondasun higiezinetakoa jabe-erkidegoen gastu erkide gisa, zorrean dauden kopuruak ez ordaintzeari buruzko ziurtagirien bitartez.

813. artikulua. Eskumena

Zordunaren egoitzari edo bizilekuari dagokion lehen auzialdiko epaileak bakarrik du prozesu monitorioaren gaineko eskumena; edo, egoitza nahiz bizileku horiek ezezagunak badira, auzitegiak ordainketa-agindeia egiteko ondoreetarako, eskuduna da zorduna aurki daitekeen tokiko lehen auzialdiko epailea, salbu eta 812. artikulua 2. paragrafoko 2. zenbakian aipatu zorraren erreklamazioa denean. Kasu horretan, finka dagoen tokiko auzitegia ere izango da eskuduna, eskatzaileak hala aukeratuta.

Edozein kasutan, ez dira aplikatuko I. liburuko II. tituluaren II. kapituluko 2. atalera esanbidezko nahiz isilbidezko eskumenpean jartzeari buruz bildutako arauak.

814. artikulua. Prozedura monitorioaren hasierako eskaera

1. Prozedura monitorioa hasiko da, hartzekodunak hala eskatuta. Eskaera horretan adieraziko dira zordunaren nortasuna, hartzekodunaren eta zordunaren egoitza edo egoitzak, horien bizilekua edo horiek aurki daitezkeen tokia, eta zorraren jatorria eta zenbatekoa. Horrekin batera, 812. artikuluan aipatu agiria edo agiriak ekarri behar dira.

Eskaera egin daiteke inprimaki edo formularioan, horrek ahalbidetzen badu aurreko paragrafoan aipatu aldeak adieraztea. 2. Ez dago abokatuaren edo prokuradorearen beharrik, prozedura monitorioaren hasierako eskaera aurkezteko.

815. artikulua. Eskaera onartzea eta ordainketa-agindeia

1. Eskaerarekin batera aurkeztutako agiriak 812. artikuluko 2. paragrafoan ezarritakoak

812 o constituyeren, a juicio del tribunal, un principio de prueba del derecho del peticionario, confirmado por lo que se exponga en aquélla, se requerirá mediante providencia al deudor para que, en el plazo de veinte días, pague al peticionario, acreditándolo ante el tribunal, o comparezca ante éste y alegue sucintamente, en escrito de oposición, las razones por las que, a su entender, no debe, en todo o en parte, la cantidad reclamada.

El requerimiento se notificará en la forma prevista en el artículo 161 de esta Ley, con apercibimiento de que, de no pagar ni comparecer alegando razones de la negativa al pago, se despachará contra él ejecución según lo prevenido en el artículo siguiente.

2. En las reclamaciones de deuda a que se refiere el número 2.º del apartado 2 del artículo 812, la notificación deberá efectuarse en el domicilio previamente designado por el deudor para las notificaciones y citaciones de toda índole relacionadas con los asuntos de la comunidad de propietarios.

Si no se hubiere designado tal domicilio, se intentará la comunicación en el piso o local, y si tampoco pudiere hacerse efectiva de este modo, se le notificará conforme a lo dispuesto en el artículo 164 de la presente Ley.

Artículo 816. Incomparecencia del deudor requerido y despacho de la ejecución. Intereses

1. Si el deudor requerido no compareciere ante el tribunal, éste dictará auto en el que despachará ejecución por la cantidad adeudada.

2. Despachada ejecución, proseguirá ésta conforme a lo dispuesto para la de sentencias judiciales, pudiendo formularse la oposición prevista en estos casos, pero el solicitante del proceso monitorio y el deudor ejecutado no podrán pretender ulteriormente en proceso ordinario la cantidad reclamada en el monitorio o la devolución de la que con la ejecución se obtuviere.

Desde que se dicte el auto despachando ejecución la deuda devengará el interés a que se refiere el artículo 576.

Artículo 817. Pago del deudor

Si el deudor atendiere el requerimiento de pago, tan pronto como lo acredite, se le hará entrega de justificante de pago y se archivarán las actuaciones.

badira, edo, auzitegiaren ustez, agiriok eskaeragileak duen eskubidearen frogahastapena eratzen badute eskaeran adierazitakoa berretsiz, orduan zordunari agindeia egingo zaio probidentzia bitartez. Agindei horretan, hoguei eguneko epea emango zaio zordunari, eskaeragileari ordain diezaion eta auzitegian hori egiazta dezan, edo zorduna auzitegian agertu eta aurkajartzeko idazkian arrazoiak laburki eman ditzan, erreklamatutako kopurua oso-osorik nahiz zati batez zor ez izateko.

Agindeia lege honen 161. artikuluan ezarritakoaren arabera jakinaraziko da, eta zordunari ohartaraziko zaio beraren aurkako betearazpena aginduko dela hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera, baldin eta ordaintzen ez badu edo agertu ez eta ez ordaintzeko arrazoiak ematen ez baditu.

